

# TONUAREKIN LOTUTAKO ULERMEN MAILAKO TESTA

Iñaki Gaminde

**Hezkuntza eta Literaturaren didaktika irakaslea**

Artikulu honetan mendebaldeko doinu-azentuaren ulermen mailak neurtu gura izan dira. Horretarako mendebaldeko bizkaieraren doinu-azentuan oinarritzen den Gatikako sistemaz egindako grabaketa batez baliatu izan gara, bertako eta garaiteko barietateetako lekukoei entzun erazteko.

Doinu-azentuarekin lotuta dagozen silaba kopuruak eta kasu markak kontutan hartzen dira; hala nola, lekukoen jatorrizko barietatea eta adina ere.

Intuizioz igarri izan dugunaz gain, test honetatik ateratzen den ondorioetarik bat zera geneukake, hots, Bizkaia, arazo honi gagozkiola, ekialdetik mendebalderantz zati bitan behinik behin banatzen dela. Iparraldean doinu-azentuarekin sistemak ditugun artean, badirudi ezen hegoaldean azentu fixoa dagoela.

Euskararen azentuazio-sistemaz hainbat idazle arduratu bada ere; azkenaldiko batzu aipatzekotan Txillardegi (1985), Rotaetxe (1979), Laspiur (1979), Jakobsen (1972), Basterretxea (1974, 1975), Hualde (1986, 1987, 1989a, 1989b, 1989c) e.a. Euskaltzaindiak arazo honetaz eginiko kongresua hala nola 1987. urtean UEUn bertan eginikoa ezin ahaz ditzakegu. Hala eta guztiz ere, ez dirudi ahalegin guzti hauek gizartean ondorio larregirik izan dutenik. Irakaskuntza alorrean, esate baterako, entseiu bi, Txillardegi (1987) eta Hualde (1989c), egin badira ere, nik dakidala, azentuazioaren arazoari ez zaio inongo garrantzirik ematen, are sistema fonologiko osoa ez dela kontutan hartzen esango nuke.

Hemen, azentuazioaz Hualdek (1989a) eginiko analisiak eta lortutako ondorioak neure eginik, testa egiteko aukeratu dudan barietatean bertako euskarak sistema tonala erakusten duelakoa daukat. Esperientzia egin ahal izateko Gatikako euskara oinarriztat hartu dut, berau Bonaparte printzearen sailkapenaren arabera mendebaldeko bizkaieraren Plentziako barietatean kokatuta dago.

Barietate honetako sistema tonala ezinbesteko baliabidea da bertako euskarari, ze, beste barietate batzutan ez bezala, kasu askotan berbak ezezik funtzio gramatikalak ere bereizteko berau bait da baliabide bakarra. Beste barietate batzutan antzeko sistema tonalak badagoz ere, tonuak ez du izaten bertan daukan bezain errendimendu handia, baliabide morfologikoek ere zelanbaiteko laguntza ematen dute eta;

(1) semeari emon dotzet

(2) semeari emon dotziet

(3) semiri emontzat

(4) semiri emontzatie

Esaldi hauetan datiboaren singularra eta pluralak tonuen bidez bereizten badira ere kasu bietan aditzak lagundu egiten digu. Gatican, ostera, ez dago horrelakorik, goiko esaldi horiek honela ematen dira:

(5) semeri emon dotzet

(6) semeri emon dotzet

Esangurak bereizteko tonua dogu aukera bakarra, hau da:

(7) seméri emon dotzet (singularra)

(8) sémeri emon dotzet (plurala)

Gatikako euskaraz gauza bera sarri gertatzen da, deklinabidean ergatibo, datibo, genitibo eta destinatibo kasuetan singularra eta plurala tonuaren bidez baino ez dira bereizten; leku-denborazko kasuen mugagabea eta plurala bereizteko berdin jazotzen da.

Hemen gure helburua barietate honetan oinarrituta pertzepzio alorrean egindako esperientzia baten emaitzak aurkeztea da.

Testa prestatzeko suprasegmentalki baino bereizten ez diren 30 esaldi aukeratu genuen eta bertako lekuko bati<sup>1</sup> grabaeraziz gero, beronen amari eta ahizpari<sup>2</sup> entzun erazi genizkien jakiteko barietate berekoek ezezik familia berekoek ere gauza bera ulertzen zuten ala ez; proba honen emaitzak ezin hobekak izan ziren, izan ere, berauek atoa igerrituz zituzten esaldi guztiak batera hutsik egin barik eta inongo zalantza-izpirik barik.

Hona hemen aukeratu genituen esaldiak Gatikeraz eta euskara batuaz grabatutako ordena berean:

- 1.- gixonari esan dotzet (gizonari esan diot)
- 2.- au semena da (hau semeena da)
- 3.- oneri esan dotzet (honi esan diot)
- 4.- sementzako erosi dot (semeentzat erosi dut)
- 5.- semeri esne emon dotzet (semerari esnea eman diot)
- 6.- au lagunena da (hau lagunarena da)
- 7.- iru etzetan egonas (hiru etxeetan egon naiz)
- 8.- lagunek ekar daus (lagunak ekarri ditu)
- 9.- orrek ikusi sittue (horiek ikusi zaituzte)
- 10.- onek semenak dira (hauek semearenak dira)
- 11.- onentzako ekar dere (honentzat ekarri dute)
- 12.- sementzako erosi dot (semearentzat erosi dut)
- 13.- onek lagunena(k) tire (hauek lagunena(k) dira)
- 14.- onek semek ekar daus (honek semeak ekarri ditu)
- 15.- au onena da (hau hauena da/hau onena da)
- 16.- onek ikusi sittue (honek ikusi zaituzte)
- 17.- onek semena(k) tire (hauek semeena(k) dira)
- 18.- lagunentzako ekar dot (lagunarentzat ekarri dut)
- 19.- oneri esan dotzet (hauei esan diet)
- 20.- au lagunena da (hau lagunena da)
- 21.- semeri esne emon dotzet (semerari esnea eman diet)
- 22.- iru etzetan egonas (hiru etxetan egon naiz)

- 23.- gixonari esan dotzet (gizonari esan diot)
- 24.- au semena da (hau semearena da)
- 25.- onek ekar daus semek (hauek ekarri ditu semeak)
- 26.- au onena da (hau honena da)
- 27.- lagunek ekar daus (lagunak ekarri ditu)
- 28.- onentzako ekar dere (hauentzat ekarri dute)
- 29.- onek lagunena(k) tire (hauek lagunarenak dira)
- 30.- lagunentzako ekar dot (lagunentzat ekarri dut)

Hauetarik 26 aztertuko ditugu bikotetan banatuta, hiru multzotan sailka ditzakegu, erakusleen deklinabidea, "seme" berba, eta "lagun" berba:

Erakusleak:

- 9.- orrek ikusi sittue (horiek ikusi zaituzte)
- 16.- onek ikusi sittue (honek ikusi zaituzte)
- 3.- oneri esan dotzet (honi esan diot)
- 19.- oneri esan dotzet (hauei esan diet)
- 26.- au onena da (hau honena da)
- 15.- au onena da (hau hauena da / hau onena da)
- 11.- onentzako ekar dere (hontentzat ekarri dute)
- 28.- onentzako ekar dere (hauentzat ekarri dute)

Seme:

- 14.- onek semek ekar daus (honek semeak ekarri ditu)
- 25.- onek ekar daus semek (hauek ekarri ditu semeak)
- 5.- semeri esne emon dotzet (semeari esnea eman diot)
- 21.- semeri esne emon dotzet (semeei esnea eman diet)
- 2.- au semena da (hau semearena da)
- 10.- onek semenak dire (hauek semeenak dira)
- 17.- onek semenak dire (hauek semeenak dira)
- 12.- sementzako erosi dot (semearentzat erosi dut)
- 4.- sementzako erosi dot (semeentzat erosi dut)

Lagun:

- 8.- lagunek ekar daus (lagunak ekarri ditu)
- 27.- lagunek ekar daus (lagunak ekarri ditu)
- 6.- au lagunena da (au lagunarena da)
- 20.- au lagunena da (hau lagunena da)
- 29.- onek lagunena(k) tire (hauek lagunena(k) dira)
- 13.- onek lagunena(k) tire (hauek lagunena(k) dira)

18.- lagunentzako ekar dot (lagunarentzat ekarri dut)

30.- lagunentzako ekar dot (lagunentzat ekarri dut)

Gure testa burutu ahal izateko esaldiak birritan entzun erazi genizkien lekukoei; lehenengoan jarraian entzuten zituzten dena, ezer ere idatzi barik, gero esaldiak banan banan entzunda zer ulertzen zuten esan behar zuten. Era honetara 100 erantzun jaso ditugu; lekukoak, bat izan ezik<sup>3</sup>, denak gutxi gorabehera alfabetatuak izan dira. Edadeen arabera 16-54 urte artean kokatzen dira denak; edadearen eragina eta desberdintasunak neurtu ahal izateko multzo bitan banatu ditugu; alde batetik, 16-24 urte artekoak eta, beste aldetik, 25 urtetik gorakoak. Hona hemen kopuruak:

1. Taldea: 16 - 24	
16 - 18	13
19 - 21	17
22 - 24	31
	<hr/>
	61

2. Taldea: 25tik gorakoak	
25 - 29	12
30 - 34	15
35 - 39	5
40 - 44	2
45 - 49	3
50 -	2
	<hr/>
	39

Lekukoen jatorrizko euskararen eragina neurtu gura izan dugun beste faktore bat izan denez gero, zortzi multzotan banatu ditugu aldagai honen arabera:

Bertakoak (B):	6
Mungikoak (M):	11
Txoriherri (Tx):	8
Arratia (A):	13
Bermeo (Be):	23
Gernika (G):	15
Durango (D):	9
Markina (Ma):	15

Huts-kopurua 0 eta 15 artean kokatzen da; denetara 2.600 erantzun jaso dugu eta hutsak 736 izan dira; honek %28,30eko huts-kopuruaren batezbestekoa ematen digu. Edadearen araberako huts-kopurua honako hau izan da:

	Erantzun	Hutsak	%
+ 25	1014	254	24,95
- 25	1586	483	30,45
guztira	2600	736	28,30

Ikusten denez edadearen arabera orohar 5,5 puntuko desberdintasuna dago; edade-tarteak oso txikiak izanda eta honelako tarteak egonda bidezkoa da pentsatzea zaharragoekin eginez gero tarte hau handiagoa izango litzatekeela.

Orokorrean huts-kopuruak ondoko taula honetan ikus ditzakegu:

Ikusten denez 0-3 tartean 11 kokatuta daude, 4-7 tartean 40, 8-11 tartean 38 eta 12-15 artean 11; hala ere huts-kopuru gehienak 4-11 artean kokatuta dagoz. Kopuru hauek barietateen arabera honela banatzen dira:

	Hutsak	%
B.	5	3,20
M.	69	24,12
Tx.	62	29,80
A.	123	36,39
Be.	155	26,08
G.	115	29,48
D.	87	37,17
M.	120	30,76

Ikusten denez, bertakoentzat sistema sano argi dagoen artean, gainerako barietateetakoek ulermen alorrean hurbiltzen direnak ditugu, alde batetik; Txoriherri, Gernika eta Markina geroago ditugu, eta azkenik gehien urruntzen direnak Durango eta Arratia ditugu, hegoaldeko bizkaieraz kokatuta dauden barietateak, hain zuzen.

Azkenik barietateak eta edadeak kontutan hartuta honako taula osa dezakegu:

	+ 25		- 25		Orotara	
	hutsak	%	hutsak	%	hutsak	%
B	1	1,28	4	5,12	5	3,20
M	12	23,07	57	24,35	69	24,12
Tx	28	26,92	34	32,69	62	29,80
A	50	32,05	73	40,10	123	36,39
B	41	26,92	114	25,79	155	26,08
G	27	25,92	88	30,76	115	29,48
D	37	28,46	50	48,07	87	37,17
Ma	57	27,40	63	34,61	120	30,76

Barietateetan edadearen araberako desberdintasunak kontutan hartuta honako taula osa dezakegu:

Be.	1,13
M.	1,28
B.	3,84
G.	4,84
Tx.	5,77
M.	7,21
A.	8,05
D.	19,61

Edadearen araberako desberdintasunik handiena, ikusten denez, Durangon jazotzen da.

Interesatzen zaigun beste arazo bat honako hau dugu, hots, jakitea hutsak zein arlotan jazotzen diren; horretarako erakusle, seme eta lagun berben emaitzak bereiz ikusiko ditugu:

	B	M	Tx	A	Be	G	D	Ma
Erakus.	-	16	14	27	34	27	33	26
Seme	-	27	29	50	72	55	35	49
Lagun	5	26	19	46	49	33	29	45

Huts guztien artean honako portzentaia hauek agertzen dira:

Erakusleak	% 22,69
Lagun	% 34,23
Seme	% 43,00

Kontutan hartuta zenbat galdera egin den multzo bakoitzeko huts-kopurua beste era honetara gertatzen da:

Erakusleak	% 20,87
Lagun	% 31,50
Seme	% 31,70

Ikusten denez hutsak erakusleetan baino berben deklinabidean gertatzen dira batez ere.

Kasu-marken arabera gauza bera egin dezakegu; kontutan hartzen badugu bereizteko ergatiboa, datiboa, genitiboa eta destinatibo kasuak erabili izan direla, honela eman ditzakegu portzentaiak huts guztien arabera:

Ergatiboa	% 28,12
Datiboa	% 12,90
Genitiboa	% 36,00
Destinatiboa	% 21,60

Kasu bakoitzeko egindako galdera-kopuruen arabera huts-kopurua beste era honetara agertzen da portzentaian:

Ergatiboa	% 34,50
Datiboa	% 23,75
Genitiboa	% 26,50
Destinatiboa	% 26,50



Ikusten denez huts-kopururik handiena ergatibo kasuaren singular eta pluralaren bereizketan gertatzen da. Barietateka datuak beste era honetara eman ditzakegu:

Bertan	E.	D.	G.	De.	Oro
Era.	-	-	-	-	-
Seme	-	-	-	-	-
Lagun	1	-	2	2	5

Dirudienez bertakoen arazo bakarra silaba-kopuruarekin lotuta dago.

Mungia	E.	D.	G.	De.	Oro
Era.	5	5	3	3	16
Seme	4	7	10	6	26
Lagun	7	-	13	6	26

Txoriherri	E.	D.	G.	De.	Oro
Era.	6	4	2	2	14
Seme	8	6	11	4	29
Lagun	5	-	9	5	19

Arratia	E.	D.	G.	De.	Oro
Era.	11	7	5	4	27
Seme	16	12	14	8	50
Lagun	11	-	20	17	46

Bermeo	E.	D.	G.	De.	Oro
Era.	15	6	5	4	27
Seme	21	10	14	8	50
Lagun	12	-	20	17	46

Gernika	E.	D.	G.	De.	Oro
Era.	11	7	6	3	27
Seme	17	7	23	8	55
Lagun	1	-	19	13	33

Durango	E.	D.	G.	De.	Oro
Era.	8	6	3	6	23
Seme	9	5	13	8	35
Lagun	5	-	14	10	29

Markina	E.	D.	G.	De.	Oro
Era.	9	8	5	4	26
Seme	12	5	19	13	49
Lagun	13	-	17	15	45

Harrigarriena aurreko taulak ikusita hauxe dugu, hots, "lagun" berbaren datiboaren bereizketan barietate guztietan hutsik ez egotea. Kontutan hartzen badugu Gatikako euskaraz bokalez amaituko izenetan beste barietateetan baino silaba bat gutxiago dagoela eta huts-kopuru handiena, hain zuzen, hor jazo dela, bidezko dirudi pentsatzeak tonuarekin batera silaba-kopurua ere sano garrantzitsua dela.

Guzti honetatik lau ondorio nagusi atara daitezkeelakoa daukat:

1. Bertako barietatekoentzat euron tonu-sistema guztiz garrantzitsua dela, izan ere, gainerakoekin erkatuta sano huts-kopuru eskasa ematen da; kontutan hartuta, bestalde, esaldiak bereizteko berori dela baliabide bakarra.
2. Orohar edadearen arabera desberdintasuna nabarmena da barietate guztietan, Durangoko barietatean, ikusikoa legez, berau inon bino nabarmenagoa izanda. Honek zelanbait adierazten du tonu-sistema belaunaldi gazteetan galduz doala.
3. Geografiaren arabera hurbilen dauden barietateak ingurukoak dira: Mungia eta Bermeo hain zuzen. Txorierri ondokoa izanda nahikoa urrun agertzen zaigu; badirudi, bestalde, hego bizkaiera orohar urrunago dagoela, hau da: Arratia eta Durango bereziki.
4. Azkenik badirudi tonuaren pertzepzioan eragina duela silaba-kopuruak, izan ere, silaba bat gutxiago izateak huts-kopurua handierazten du.

---

## Oharrak

---

1. Lekukoa Esther Elgoibar Barandika, 33 urtekoa; Butroi auzokoa, gurasoak Butroikoak.
2. Ama Bibiana Barandika Juaristi, 77 urtekoa; Butroi auzokoa, gurasoak Butroikoak. Isabel Elgoibar Barandika, 46 urtekoa.
3. Lehen aipatutako Bibiana Barandika, hain zuzen.

---

## Bibliografia

---

- BASTERRETXE, J.; "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica" *FLV* 18, 1. zatia, 1974
- BASTERRETXE, J.; "Estudios sobre entonación vasca según el habla de Guernica" *FLV* 21, 2. zatia, 1975.
- JACOBSEN, W; "Nominative-Ergative Syncretism in Basque", *ASJU* 6, 1972.
- HUALDE, J.I.; "Tone and Stress in Basque: A Preliminary Study", *ASJU* 20, 867-986, 1986.
- HUALDE, J.I.; " A Theory of Pitch-Accent, with Particular Attention to Basque", *ASJU* 20, 22-3, 1987.
- HUALDE, J.I.; *A Lexical Phonology of Basque*. "Doktorego Tesia, Unibersity of Southern California", Los Angeles, 1988.
- HUALDE, J.I.; "Acentos vizcaínos", *ASJU* 23-1, 1989a.
- HUALDE, J.I.; "Otro acento vizcaíno: Getxo", *ASJU* 23-3, 1989b.
- HUALDE, J.I.; "Euskal doinu-azentuaz", *Zutabe* 21, 1989c.
- LASPIUR, I. "Azentu diakritikoa Eibarko euskaran", *Euskera* 24, 1979.
- ROTAETXE, K; *Estudio estructural del euskara de Ondárroa*. Zuaza, Durango, 1979.

TXILLARDEGI, *Euskal Azentuaz*, Elkar, Donostia, 1985.

TXILLARDEGI, "Azentuari buruzko proposamen bat" , *ELE* 2, 1987.